

Goi-mendizaletasunaren inguruko jardunaldiak Gasteizen

2007/01/22

Hainbat mendizalek Pirinioetan, Alpeetan, Kilimanjaron eta Everesten egin dituzten ahaleginak eta grabazioak ezagutzeko aukera dago.



Hainbat mendietan egindako ahaleginak eta grabazioak ezagutzeko aukera dago

Tamara Garcia, Alberto Zerain, Raquel Alejandre, Manuel Suarez, Iñaki Otxoa de Olza eta Ramon goi-mailako mendizaleek hartuko dute parte Gasteizen gaur hasiko diren goi-mendizaletasunaren hamaikagarren jardunaldietan.

Vital-Kutxak antolatzen du ospakizuna eta Fundazio horren egoitzan hitz egingo dute, gaurtik ost bitartean sei mendizaleek. Gaur arratsaldeko 18:15ean izango da inaugurazio-ekitaldia, eta elitek mendizaleen hitzaldi eta filmen emanaldiak, 20:00ietatik aurrera eskainiko dituzte.

Tamara Garcia, Alberto Zerain, ia itsututa dagoen Raquel Alejandre, Manuel Suarez, Iñaki Otxoa Ramon Larramendi dira beren esperientziak eta beste batzuenak luze eta zabal kontatuko dituzte mendizaleak.

Besteak beste, Pirinioetan, Alpeetan, Kilimanjaron eta Everesten egindako ahaleginak eta grabazioak ezagutzeko aukera dago Gasteizen, gaurtik aurrera, Vital-Kutxa Fundazioaren egoitzan.

Inprimatu  Lagun bati bidali 